

Joxepa Mendiolea Ansotegi

*Munitibar-
Arbatzegi-
Gerrikaitz,
Bizkaia
(1924-2021)*

Aurkibidea

Biografia



Gerrikaitz aldeko Ganbe auzoko Trokazulon jaio zen 1924an. Aita bertakoa zuen, artzaina, eta ama Gautebiz-Arteagakoa. Hamaika nebarrebatatik hirugarrena izan zen. Gerrikaitz eta Ganbeko eskolan ibili ostean, umetatik hasi zen beharrean ardizain zein neskame. 32 urtegez ezkondu zen Olatxu errotara eta bertan osatu zuen familia.

Zintak

MUN-005

- **Proiektua:** Munitibarko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Data:** 2012-10-05
- **Iraupena:** 60 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

MUN-006

- **Proiektua:** Munitibarko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Data:** 2012-10-05
- **Iraupena:** 63 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Elexpuru, Juan Martin

MUN-007

- **Proiektua:** Munitibarko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Data:** 2012-10-05
- **Iraupena:** 29 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

MUN-031

- **Proiektua:** Ahaztuen Oroimena
- **Elkarrizketatzailea(k):** Bereziartua, Aitor - Ibarzabal, Patxi - Unamuno, Alberto
- **Data:** 2016-01-01
- **Iraupena:** 60 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

Pasarteak

1. Gazta zelan egiten den

- **Erref:** MUN-006/001
- **Iraupena:** 0:02:01. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:02:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza

Laburpena:

<p>Gaztaia egiteko prozesua azaltzen du: esnea iragazi, epela dagoen artean "lierra" (legarra) eman, zurezko irabiagailu batez eragin, eskuz ura kendu eta moldean sartu. Berehala gogortzen da. Saltzeko orduan, ur epelaz garbitu.</p>

2. Kilo inguruko gaztak gehienak

- **Erref:** MUN-006/002
- **Iraupena:** 0:01:17. **Hasi:** 00:02:01. **Bukatu:** 00:03:18

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza

Laburpena:

<p>Egin eta biharamunean ere sal zitekeen gazta. Kiloko gaztak izaten ziren gehienak. Eginaldi bakoitzean bost edo sei gazta egiten zituzten.</p>

3. Gazura txerrientzat eta pertsonentzat

- **Erref:** MUN-006/003
- **Iraupena:** 0:01:07. **Hasi:** 00:03:18. **Bukatu:** 00:04:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza

Laburpena:

<p>Gazura txerriei ematen zitzairen. Baina egosita, esnegaina bezala ogi gainean ipini eta jan zitekeen. Zenbaitek edan ere egiten zuen.</p>

4. Gazta gari artean sartuta kontserbatzen zen

- **Erref:** MUN-006/004
- **Iraupena:** 0:02:12. **Hasi:** 00:04:25. **Bukatu:** 00:06:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza

Laburpena:

<p>Gaztaia egiteko moldeak metalezkoak ziren, portzelanazkoak gainetik. Zumitzezko saski batzuetan gordetzen zituzten gaztak. Galtzuaren gainean ontzen ziren. Kontserbatzeko, lehortu eta gari artean sartzen zituzten kutxan.</p>

5. Haizeak kalte gaztari

- **Erref:** MUN-006/006
- **Iraupena:** 0:00:53. **Hasi:** 00:07:05. **Bukatu:** 00:07:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza

Laburpena:

<p>Haizeak arrakalatu egiten zuen gazta. Arinegi lehortzen zuen kanpoaldea. Zapi batez biltzen ziren gaztak.</p>

6. Gatzatua ontzi handitik jaten

- **Erref:** MUN-006/008
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:08:38. **Bukatu:** 00:09:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza

Laburpena:

<p>Gatzatua sarri egiten zuten, jai egunez aparte ere bai. Azukrea bota eta ontzi handi batetik jaten zuten denek. Horrelaxe jatekoa zen hura.</p>

7. Gatzatua egiten

- **Erref:** MUN-006/009
- **Iraupena:** 0:02:03. **Hasi:** 00:09:28. **Bukatu:** 00:11:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza

Laburpena:

<p>Gatzatua egiteko, legarrari neurria hartzea eta esnari tenperatura da oinarrizkoa. Hamar bat minutu inguru behar du gatzatzeko. Behi-esnez egindako gatzatua guztiz ezberdina da.</p>

8. Berrizen hika, Gerrikaitzen zuka

- **Erref:** MUN-006/011
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:12:57. **Bukatu:** 00:15:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>"Jatxi" aditza erabiltzen dute, eta "eratxi" ere ezagutzen du. Berrizen, Arratzun..., leku askotan bizita dago. Berrizen hika egiten zen, baina Gerrikaitzen ez, ezta bere aitak ere. Inoiz ikusi ditu gazteak nagusiei hika egiten, eta txarto irizten dio horri.</p>

9. Gaubelak

- **Erref:** MUN-006/013
- **Iraupena:** 0:00:53. **Hasi:** 00:16:05. **Bukatu:** 00:16:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Hiletak

Laburpena:

<p>Hildakoari gaubela egiten zitzaion. Ez zen bere gustuko ohitura. Arrosarioa errezatu, ipuinak esan... horrela pasatzen zen gaua.</p>

10. Hil-kanpaiak

- **Erref:** MUN-006/014
- **Iraupena:** 0:01:56. **Hasi:** 00:16:58. **Bukatu:** 00:18:54

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak

Laburpena:

<p>Berehala jakiten zen norbait hiltzen zenean. Hil-kanpaiak entzuten ziren, desberdinak ziren sexuaren eta adinaren arabera. Hilzorian zeuden umeak etxean bataiatzen ziren.</p>

11. 'Luzia Josepa' da paperetan

- **Erref:** MUN-006/016
- **Iraupena:** 0:01:28. **Hasi:** 00:19:42. **Bukatu:** 00:21:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak

Laburpena:

<p>Gurasoek edo aitabitxi-amabitxiek ipintzen zioten izena umeari. Bera 'Luzia Josepa' da izenez, baina inork ez dio Luzia deitu. Beldur ziren jendeak "luzea" ulertuko ote zuen.</p>

12. "Malamonja" izan zuen maistra

- **Erref:** MUN-006/020
- **Iraupena:** 0:01:03. **Hasi:** 00:25:14. **Bukatu:** 00:26:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak

Laburpena:

<p>Hamabi urterekin amaitu zituen eskolak. "Malamonjie" izenekoak, moja izandakoak ematen zuen Gerrikaitzen eskola. Gero Ganbe auzoan ("Anbre") ibili zen. Lau erregelak ikasi zituzten, ez askoz gehiago.</p>

13. Diru-zigorra euskaraz egiteagatik

- **Erref:** MUN-006/021
- **Iraupena:** 0:00:48. **Hasi:** 00:26:17. **Bukatu:** 00:27:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorrak
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

<p>Maistra erdaldunak izaten zituzten Ganbe auzoan ("Anbre"), eta euskaraz egiteagatik zigorra izaten zuten. Dirutan ordaindu beharreko zigorra.</p>

14. Arratzun, Berrizen eta Gernikan lanean.

- **Erref:** MUN-006/022
- **Iraupena:** 0:02:53. **Hasi:** 00:27:05. **Bukatu:** 00:29:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:

<p>Arratzun ibili zen aitarekin artzain. Ondoren Berrizera joan zen lanera baserri batera. Gero Gernikan hasi zen lanean okindegiko batean. Hantxe ikasi zuen erdara apur bat.</p>

15. Etxeko lanak zein okindegikoak bere gain

- **Erref:** MUN-006/024
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:30:43. **Bukatu:** 00:32:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak
- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:

<p>Etxeko eta okindegiko lanak egiten zituen. Ordainsari txikia zuen. Labeko lanak nolakoak izaten ziren kontatzen du.</p>

16. Ahizpa batzuk neskame, beste batzuk fabrikara

- **Erref:** MUN-006/027
- **Iraupena:** 0:02:13. **Hasi:** 00:35:33. **Bukatu:** 00:37:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Neskameak
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)

Laburpena:

<p>Ahizpa gehienak egon ziren neskame. Eibarrera joan ziren bi izan ezik, hauek lanera sartu baitziren fabrikara. Eskola amaitu eta ardiekin hasi zen bera. Gero, urtebete Berrizen neskame, eta handik Gernikara okindegira.</p>

17. "Elizan sartu" barik ezin kanpora irten ama erditu berria

- **Erref:** MUN-006/030
- **Iraupena:** 0:00:49. **Hasi:** 00:39:13. **Bukatu:** 00:40:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak

Laburpena:

<p>Zortzi bat egun egin ohi zituen amak ohean umea erdituta gero. Baina gero "elizan sartu" behar izaten zuen umeagaz. Bestela ezin zen kanpora irten.</p>

18. Munitibarrera dantzara

- **Erref:** MUN-006/032
- **Iraupena:** 0:01:28. **Hasi:** 00:40:56. **Bukatu:** 00:42:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

<p>Munitibarrera joaten ziren gaztetan erromeriara. Santa Eufemiara eta inguruko zenbait auzotara ere bai. Munitibarren "Txato"k jotzen zuen soinua eta eurak dantzan aritzen ziren jo eta ke. Eta ilunkeran etxera. Txato soinujolea nor zen.</p>

19. Dantza lotua, bekatu itzela

- **Erref:** MUN-006/034
- **Iraupena:** 0:01:09. **Hasi:** 00:43:18. **Bukatu:** 00:44:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

<p>Dantza soltean eta lotuan, bietan ibiltzen ziren. Lotuan ibiltzea bekatu itzela zen. Abadeek dena jakiten zuten; eta konfesatu ezean ez zegoen jaunartzerik.</p>

20. Mezara joateko komeriak neguan

- **Erref:** MUN-006/035
- **Iraupena:** 0:01:03. **Hasi:** 00:44:27. **Bukatu:** 00:45:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak

Laburpena:

<p>Bi meza izaten ziren. Bideak lokatzaz beteta egoten ziren eta askotan bustita eta zikinduta heltzen ziren herrira.</p>

21. Gizonak eta andreak nahastu barik elizan

- **Erref:** MUN-006/036
- **Iraupena:** 0:01:03. **Hasi:** 00:45:30. **Bukatu:** 00:46:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizkizunak eta otoitzak

Laburpena:

<p>Elizan gizonak atzean eta koruan egoten ziren eta emakumeak, berriz, aulkietan eta aurreko bankuetan. Sepulturan egon behar izaten zuten emakumeek. Lutoa edo horrelako zerbait zutenak aurreko bankuetan.</p>

22. Oizen basoa erretzen eta herritarrak prozesioan

- **Erref:** MUN-006/037
- **Iraupena:** 0:01:29. **Hasi:** 00:46:33. **Bukatu:** 00:48:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra
- Erljioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Aste Santua

Laburpena:

<p>Fraideak "misiñoiak" ematera etortzen ziren, eta aitortzak egitera. Behin gogon du herri osoa prozesioan hilerrira zihoala Oizen basoa ikusten zutela erretzen.</p>

23. Oinaztarriak etxea erre zienekoa

- **Erref:** MUN-006/038
- **Iraupena:** 0:02:46. **Hasi:** 00:48:02. **Bukatu:** 00:50:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Natura » Meteorologia
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak

Laburpena:

<p>Etxea erretzen zenean, etxe-erre eskean ibiltzen ziren, etxea berriz jasotzeko. Eurek, erre zitzairenean, ez zuten ezer eskatu. Oinaztarriak erre zuen. Ezkaratzeko (sukaldeko) leihotik sartu zen. Egun hartako gertaerak. Abereak ateratzea lortu zuten.</p>

24. Auzoko gizon bat oinaztarriak hil Oizen

- **Erref:** MUN-006/039
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:50:48. **Bukatu:** 00:52:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak

Laburpena:

<p>Oinaztarriaren kontrako erremedioen berririk ez du. Auzoko artzain bat ere oinaztarriak hil zuen Oizen. Arbolaren ondora hurbildu zen; hori arriskutsua ei da.</p>

25. Kandelario, Erramu eta San Joan egunez egiten ziren erritoak

- **Erref:** MUN-006/040
- **Iraupena:** 0:02:29. **Hasi:** 00:52:43. **Bukatu:** 00:55:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » San Juan
- Aisia » Jai-giroa » Kandelario Eguna
- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Beste batzuk

Laburpena:

<p>Trumoi eta zaparrada handiak zirenean kandela isiotzen (pizten) zuten. Kandelario Egunean bedeinkatzen ziren. Erramu Egunez gurutzeak egiten ziren; ereinotzaz ipini eta bedeinkatu egiten ziren. San Juan egunez loreak bedeinkatzen ziren. Lizarra San Joan bezperan ipintzen zen etxeko atean.</p>

26. San Juan sua eta kanta

- **Erref:** MUN-006/041
- **Iraupena:** 0:00:52. **Hasi:** 00:55:12. **Bukatu:** 00:56:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » San Juan

Laburpena:

<p>Aurreko urtean bedeinkatutako lore-sorta erretzen zen san Juan Egunean. "Zapuak eta subiak ondo erre" kantatzen zuten. Kanta errezitatzen du.</p>

27. Gabonetako ospakizunak

- **Erref:** MUN-006/043
- **Iraupena:** 0:03:05. **Hasi:** 00:56:55. **Bukatu:** 01:00:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak

Laburpena:

<p>Gabon eguneko afaria berezia izaten zen. Gauerdiko mezara jaisten ziren lastazaoz edo farolez argi eginda. Gabon inguruko jakiak. Ogi-koskor sakratuaren usadioa.</p>

28. Gabonetan familia elkartzeko ilusioa

- **Erref:** MUN-006/045
- **Iraupena:** 0:01:23. **Hasi:** 01:00:15. **Bukatu:** 01:01:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak

Laburpena:

<p>Lehen etxeko denak biltzen ziren Gabonetan. Ilusio handia izaten zuten denak elkartzeko. Ez zen oparirik-eta egiten, asko jota "subatxoak edo", (mazapana).</p>

Mendiolea Ansotegi, Joxepa | ahotsak.eus Orr.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-12-15

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com